



KASUA/KONTSULTA ASISTENTZIAREN ETIKAKO BATZORDERA BIDALTZEKO PROZEDURA

NORK eska diezaioke aholkularitza AEBri?

Ondorengoek eska diezaiokete aholkularitza Asistentziaren Etikako Batzordeari (AEBri):

- a) Bere jarduera-eremuko (Gipuzkoako) osasun-zentroetako profesionalak,
- b) Osasun-zentroek beraiek, euren zuzendaritzako organoak baliatuz,
- c) Bere jarduera-eremuko osasun-zentroetako paziente eta erabiltzaile guztiek, horien legezko ordezkariak, euren familiartekoen edo are horretan legezko interesa duela akredita dezakeen edonork.

NOLA eskatu aholkularitza hori?

- Zuzenean, comiteeticaHUD@googlegoups.com helbidea baliatuz horretarako
- Donostia Unibertsitate Ospitaleko Intranetaren bidez
- AEB osatzen duten pertsonetako batekin zuzenean harremanetan jarritz
- Laneko ordutegian (8:00 h-15:00 h), AEBko administrarien bitartez
 - e.maikez: MARIABEGONA.MARTINEZMORENO@osakidetza.eus edo BEATRIZ.GARCIAARGIBAY@osakidetza.eus
 - Telefonoz: 837483-832047 luzapena, ospitaletik deituz, edo 943007483 luzapena, ospitalez kanpotik deituz

Eskaera egiteko gomendioak (Ikus erantsitako dokumentua):

1. Identifikatu argi eta garbi kontsulta egin duen pertsona, zein zerbitzutatik datorren (egokia den kasuetan) eta baita harremanetan jartzeko modua zein den ere (e-maila, telefonoa, etab.).
2. Garrantzi handikoa da eskaeran azaltzea, ahalik eta modurik argienean, galdera moduan kontsultaren **arrazoia** eta baita **zer** eskatzen den AEBtik, hala nola arrazoizko **urgentziarik** baden edo ez argitzea ere.
3. Eskaeran EZ da pazienteen identifikaziorako aukerarik eman dezakeen datu pertsonalik agertuko, horretarako espresuki baimenik eman ez bada behintzat.

Eskaeren TRAMITAZIOA

Eskaera jaso ondoren, AEBk pertsona bat (edo pertsona-talde bat) izendatuko du kasuaren arduradun bezala, eta eskatzailearekiko solaskide moduan. Pertsona horren ardura izango da eskatzailearekin harremanetan jarri eta jarraitu beharreko prozedura zehatz-mehatz doitu eta egokitzea.

Asistentziaren Etikako Batzordeak, behin bere esku-hartzea amaitu ondoren eta dagokion unean, gomendio-txosten bat prestatuko du, eta txosten hori pertsona eskatzaileari soilik emango zaio, eskura hain zuzen ere. Horrela, bada, prozedura eta txostena konfidentzialak, isilekoak izango dira.

(I. Eranskina)

**ASISTENTZIAREN ETIKAKO BATZORDEARI KONTSULTA ESKATZEKO
DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEA**

ESKATZAILEAREN DATUAK:

izena:

Deiturak:

Harremanetarako helbidea:

Posta elektronikoa:

Harremanetarako telefonoa:

ESKAERARI BURUZKO DATUAK:

Urgentea BAI EZ (Urgentea bada, adierazi arrazoia):

.....
.....
.....
.....

Kontsultaren arrazoia (Deskriba ezazu, labur-labur, zein arazori buruzko aholkua eskatzen duzun. Ez eman identifikatzeko aukerarik eskain dezakeen beste hirugarren bati buruzko datu pertsonalik, beharrezko baimenik gabe)

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....